

# “HITZARMENA ETA TELELANA NEGOZIAZIOA ORAIN!!”



Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) ELA-LAB-UGT-CCOOK mobilizazioak iragarri ditu telelaneko plan bat aldarrikatzeko eta akordioa/hitzarmena eguneratzearen alde egiteko.

Maiatzaren 18an, astelehenean, langileen kolektiboak egindako batzarraren ondoren, BFAko ELA- LAB- UGT eta CCOO atal sindikalek 2018-2019tik geldituta dagoen Akordioa/Hitzarmena eguneratzea eskatzen dute, baita Telelaneko Plan erreal bat ezartzea ere; Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren blokeoaren eta itxikeriaren aurrean.

Akordioa/Hitzarmena, duela 7 urte baino gehiagotik eguneratu gabe dagoena, guztiz zaharkituta geratu da gure ingurune sozio-ekonomikoan gertatu diren egiturazko aldaketa sakonen ondorioz; eta, ondorioz, errealitate berrira egokitzen ez diren lan-baldintzekin.

Era berean, Aldundiak ingurumen-iraunkortasunari dagokionez babesten dituen helburuekin koherentea den jarduera aldarrikatzen dute; hala nola, karbonoaren aztarna gutxitzea, trafikoaren joan-etorriak murriztea eta energia-eraginkortasuna, baita eta telelanaren bidezko familia-kontziliazioa ere.

Hala ere, Bizkaiko Aldundiak behin eta berriz errefusatu egin du beste administrazio batzuetan ezarri den **benetako telelan-plan bat** abiaraztea, funtsezko eta egiaztatutako tresna bat dena.